

Greba feminista antolatzen hasteko deialdia

Larunbat honetan egingo dute lehen bilera irekia, Urigainen. Greba erabatekoa izatea helburu dute, deitzailea mugimendu feminista dela oso garbi utzita / 16



"Pausoz pauso, martxoak 8 emakume" ekitaldia prestatzen hasi dira Andoainen / 16



Santa Eskea, kantu errondak Andoainen eta Urnietan datorren astelehenean / 5, 14



LASTER E KINGO DIO DENBORALDI BERRIARI

Mikel Iturria Urnietako txirrindulariari elkarrizketa, otsailaren 6ko debutaren atarian / 2-3



Kiroldegiaaren proiektuaren aurkezpena GAUR, urtarrilak 31, 19:00etan, Lekaion

Etorri kiroldegi berriak izango dituen ezaugarriak eta eskainiko dituen zerbitzuak ezagutzera



"Anbizio gehiago eduki nahi dut"

MIKEL ITURRIA EUSKADI-MURIAS TALDEKO TXIRRINDULARIA

Denboraldia hastear da urnietararentzat: "laz lesioak mugatu egin ninduen, aurten ez; anbizio gehiago eduki nahi dut"

Andoni Urbistondo URNIETA

Euskal Herritik urrun dago Mikel Iturria, Benidorm aldean (Alacant). Gure neguarekin beste bizpahiru hilabete behar-ko lituzke sasoiaren fintzeko, eta Mediterraneo Itsasoaren epelean prestatuko da hurrengo astean debutatzeko (Valentziako Itzulia, otsailak 6-10). Grinatsua ikusten zaio, 2017ko udan izterrezurra hautsi eta 2018ko lehen erdian majo sufrituta. Euskal Herriko Itzulia eta Vuelta ditu begiz jota, baina bietan postua irabazi behar duela jakitun.

Zer moduz joan da negua? Zer egin duzu?

Vuelta eta gero beste hiru lasterketa korritu genituen: Paris-Tours, Paris-Bourges eta Tour de Vendee. Urriaren 8an, azken proba. Ondoren atsedena hartu nuen, eta azaroaren 5ean hasi nintzen 2019ko denboraldia prestatzen.

2017ko udan lesio larria izan zenuen izterrezurrean, eta burdin dezente daukazu oraindik gorputzean. Nola daukazu hanka?

Beno, hezurra finkatzeko jarritako gailuak kendu edo ez kendu aztertu genuen prestatuntza hasi aurretik, baina kentzeko erabakiak ebakuntza berri bat suposatzen zuen, ondorengo osatze epearekin, eta sor daitzekkeen ezustekoekin. Ebakuntzarik ez egitea erabaki genuen, ez zuelako hobekuntzarik ziurtatzen.

Burdinak burdin, denboraldi hau arazo fisikorik gabe hasi ahal izan duzu, ezta?

Bai, hala da. Aurreko bi urteetan lesio bat ez bazen, bestea zen, eta negu honetan osasun arazorik ez dut eduki. Prestaketa saioen plangintza ondo doa. Lasai, gehiegi azkartu gabe ondo ari naiz, etenik gabe.

Zenbateraino aldatu da zure mobiltasua, dagoeneko izterrezurra ondo daukazula jakinda?

Dena aldatzen da. Iazko urrian ez nekien bizikletan ibiltzeko gai izango nintzen edo ez. Pausotxoak ematen dituzu, baina halako lesio larri baten ondoren ez dakizu berriro bizikletan ibili ahalko zaren, eta zer esanik ez goi mailan ibiliko ote zaren. Oso urrun ikusten nuen aukera zen. Iaz, garai honetan eskuin hankarekin %43ko indarra egiten nuen. Jakina, ezkerrekoak %57, horrek ekar dezakeen gain karga eta lesio arriskuarekin. Orain %49an eragiten diot eskuin hankarekin, parean, eta ahuldade, molestia txiki batzuk noizbehinka azaltzen badira ere, gustura nago. **Pentsatzen dut buruak ere bere lana egingo duela, gorputza hobeto dagoenean.**

Aurten anbizio pixka bat gehiago eduki behar dudala uste dut. Esan nahi dut; pasa den neguko prestatuntzan eta denboraldian izterrezurreko hausturaren handicap-a eduki nuen, eta halere Espainiako Vuelta bukatu eta lan txukuna egiteko gai izan nintzen. Iaz onartua neukan etortzen zena bere horretan hartu behar nuela lesio larri haren erruz. Aurten lesioa osatu da, eta gauzak hobeto joan behar dutela sinetsita nago. Inork ez dio nire buruari nik baino gehiago exijitzen.

"PRESTAKETA SAIOEN PLANGINTZA ONDO DOA. GEHIEGI AZKARTU GABE, ONDO ARI NAIZ"

Jendea konsziente ote da, pasa zenuen kalbarioarekin?

Antzeko egoeran egon denak, bai, dudarik ez. Badakit zer pasa dudan. Bi hilabete oina lurrean jarri gabe. Eta buelta eman eta duintasunez lehiatu naiz. Erregularra izan naiz betidanik, eta izan nintzen iazko Vueltan, eroriko batek egun batzuetan jokoz kanpo utzi arren.

Eta zer lortu nahi zenuke 2019an? Emaizta hobeagoak, noski. Niretzat eta taldearentzat.

Ze egutegi egingo duzun ba al dakizu?

Gutxi-asko bai. Valentzia eta Andaluziako Itzulia korrituko ditut otsailean, gero altuerako prestatuntza, normalean Sierra Nevada (Granada, Espainia), eta ondoren Kataluniako Volta eta Euskal Herriko Itzulia, merzimenduak egin eta taldean postu bat lortzen badut.

Proba kuttunen bat ba al duzu?

Ez nau asko arduratzen horrek. Lasterketa guztiak dira politak, eta ez dut uste hau edo beste aukeratzeko erabakimena daukadanik... 3-4 urte daramatzat kolpea hemen, kolpea han, egun batean ondo, hurrengoan gaizki... nahiago dut bidea egunez egun egin. Gainera, nik Vuelta korritu nahi dudala esan dezaket, baina gero, agian, arrazoi bategatik edo besteagatik, zortzi taldekide ni baino sasoi puntu hobean daude, eta haiek korritzea merezi dute, nik baino gehiago.

"LESIOA OSATU DA. AURTEN GAUZAK HOBETO JOAN BEHAR DUTELA SINETSITA NAGO"



Mikel Iturria Benidorm aldean duela egun gutxi ateratako irudian. EUSKADIMURIAS

Zer ikasi zenuen zure lehen itzuli handian?

Zure gorputzaren limitea, muga, uste baino urrunago dagoela. Bestelakoan karrera normala da, hiru itzuli handietan lasaie-na, nahiz eta egun batzuetan oso azkar ibili.

Disfrutatu al zenuen?

Bai, beti dago tarteren bat. Adibidez, bigarren astean jausi eta egun batzuk grupetta-n edo azken multzoan hiruzpalau egin nituen sufritzen, baina beti daude disfrutatzeke momentuak.

Pasa den asteazkenean egin zen Euskadi-Murias taldearen aurkezp-en ofiziala. Bi txirrindulari garrantzitsuk egin dute martxa, Aberasturik eta Pradesek, talde apalagoa al daukatzue denboraldi honetan?

Ez dut uste haiek joan direlako talde txarragoa dugunik. Kaze-tarien esanak dira horiek. Emai-tzak hor daude, taldeko txirrindulari asko ondo ibili dira, eta urtebeteko eskarmentu gehiago dugu elitean... Ez dut talde kas-karragoa ikusten. Beñat In-txausti etorri da, eta eman duen mailaren erdia ematen badu, taldearentzat oso txirrindulari inportantea izango da.

Zer moduz berarekin?

Ondo. Mutil ona da, eta saiatzen ari da.

Fleche Wallone egun bateko klasiko entzutetsua korritzeko gonbidapena jaso duzue, garbi dago taldea hazten doala. Pixkanaka, baina etenik gabe.

Taldeak beti izan du oso egu-tegi ona, ez sinesteko modukoa, daukagun maila ikusita. Francis Lafargue ari da azpi lanean, eta gu, gonbidatzen gaituzten tokietan neurria ematen ari garela esango nuke. Orain Fleche Wallone eta Omango Tourrean ondo aritzea tokatzen zaigu.

World Tour kategoriako taldeekin batera aritzea garrantzitsua da taldearentzat.

Bai, baina horretarako ez dugu World Tour probetako gonbida-penaren zain egon behar. Valen-tzian eta Andaluzian munduko talde on asko elkartzen dira, Europa erdi eta iparreko negu

gordinetik ihesi. Bi itzuli horiek ez dute World Tour kategoriarik, baina World Tour-a korritzen duten txirrindulari sorta aber-tsa aritzen da lehiatzen.

Otsailak 6, debuta, Valentzian. Berehala.

Bai. Arrankatzea kosta egiten zait, eta proba bat edo beste izan, ez da hain garrantzitsua. Erritmoa hartu nahi nuke lehen bi itzulietan, eta gero altuerako prestakuntzan, sasoi-a findu. Gero esandakoa, Volta, Itzulia eta Tour des Alps triptikoa. Baina hori, orain, teoria da.

Iaz Euskal Herriko Itzulia korritze-ko hautagai multzotik at geratu zinen, zuk zeuk garaizegi zela ikusita. Aurten etxean korritu nahi zenuke.


Bai, iaz arazo fisiko txikiak nituen etengabe, eta uko egin nion. Aurten, gauzak ondo ba-doaz, korritu nahi nuke. Nire-tzat etxeko lasterketa korritzea txikitatik daukaten ametsa da, ea aurten posible den. Klasikoa ere korritu nuen iaz, eta oso sentipen politak bizitzen dira. Murgilko igoera pikoan, Igeldon, jota gindoazen, ia-ia geratuta, eta halere denboraldiko oroi-tzapen ederrenetakoa izan zen hura. Dozenaka zale, ezagun han ondoan, sekulako animoak ematen... Pentsa apirilean, sei egun jarraian. Eguraldi txarra egiten du, baina moldatuko gara. Tunel batean sartzea bezalakoa da, sekulako bultzada ematen dizu jendeak. Jota zoaz, baina aldi berean hegan, momentuan ez zara jabetzen. Gero, gainera iristen zarenean, eta zaleak falta direnean, orduan bai, se-kulako oinazeak sentitzen di-tuzu hanka zuztarretan.

Ekaina bitarte egurrean, eta gero, Espainiako Vuelta, berriro.

Bai, abuztu-irailen korritzen denez, denboraldiko lehen erdian bete-betean ahalegindu gaitez-ke, eta gero uztaila eta abuztu-ko lehen erdian pilak kargatu berriro. Itzulia eta Vuelta dira gure taldearentzat egutegiko proba garrantzitsuenak, eta biak korritu ahal izatea gauza polita litzateke.

"ITZULIAN PARTE HARTZEA TXIKITAKO AMETSA DA. EA AURTEN BETETZEKO AUKERA DUDAN"

"NORBERAREN MUGA FISIKOA URRUNAGO DAGOELA IKASI NUEN LEHEN ITZULI HANDIAN"




Taldeakideekin batera, joan zen asteko aurkezpen ekitaldi ofizialean. EUSKADIMURIAS



"Gehien gustatzen zaidana irakasleekin dagoen gertuko harremana da"

Peio Manterola Pavo (Andoain, 1997)

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (HUHEZI) ari da Lehen Hezkuntzako —Hezkuntza Bereziko ibilbidean— graduako azken ikasurtea egiten.



Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu hobby edo zaletasunik?

Unibertsitatez kanpoko nire ikasketa guztiak Andoaingo Aita Laramendi Ikastolan burutu nituen, Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergo-ra arte. Gaintzekoan, bederatzi urtez txirrindularitzan lehiatzen ibili nintzen baina, jada lehiaketa utzita, bizikletan ibiltzen jarraitzen dut, beste kirol batzuk praktikatzeko ditudan arren. Gai sozialak ere gogoko ditut.

Zergatik aukeratu zenuen Lehen Hezkuntza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Izatez, kirol-munduan hainbeste ibili ostean kirol zientziak ikasi nahi nituen, baina ez nuen lortu bertan sartzea. Orduan Lehen Hezkuntza — Heziketa Fisikoa egiteko aukera neukala ikusi nuen eta HUHEZIn sartzea erabaki nuen, batik bat azaldu zidaten metodologiak konbentzitu (euskaldunak eta kooperatibista). Azpimarratu behar dut gurasoek nire hautuan eragina izan zutela, eurek eskaini baitzidaten aukera. Bertan hezkuntzaren ahalmen sozia-laz ohartu nintzen eta espezialitatez aldatzea erabaki nuen.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orokorki esperientzia ona izan da, uneoro gauza berriak ikasten ari bainaiz. Gainera, unibertsitatean burutzen ditudan ikasketek inter-esgune berriak sortzen dizkirate askotan, horrek autonomoki ikastera bultzatzen naue-larik. Unibertsitatean daramadan denboran kritikoago izaten ikasi dut, informazio asko ja-sotzeak hori eskatzen baitu. Halaber, gero eta hausnartzaileagoa naiz. Arazo gehien ematen duen eta aldi berean ikaskuntza indartsuenak jorratzen diren alderdia, aldiz, talde-lanarena da, ikasle denok ez baitaukagu inplikazio mai-la bera. Aitzitik, une zailetan nola jokatu eta beste ikaskideekin eta eurez ikasteko aukera ematen dizu.

Nola definituko zenuke HUHEZIn ja-sotzen duzun ikasteko metodologia?

Alde batetik, parte-hartzailea da, ikaskuntza-irakaskuntza talde handian zein txikian ema-ten baitira; are gehiago, kontseilu errektorean ikasleok gure boza daukagu. Bestetik, kritika-ri eta hausnarketari denbora asko eskaintzen zaio. Gero, eraldatzailea da, hezkuntza idea-laren utopia baita helburu nagusietako bat. Gainera, orain metodologia are eraldatzaileagoa (diziplinartekoa eta globala) darabilte

HUHEZIn. Azkenik, euskara ardatz hartzen den metodologia eleaniztuna erabiltzen da, ingelesa zein espainola ere lantzen baititugu (testuak, bideoak, materiak).

Unibertsitateetik zer da gehien gus-tatzen zaizuna?, Eta zerbait hobe-tzeko?

Esango nuke gehien gustatzen zaizkidan alderdiak, orokorrean irakasleekin dagoen gertuko harremana eta euren prestutasuna, eta etorkizunerako behar den hezkuntzaren zein hezitzaileen inguruan jorratzen diren go-goetak direla. Bestalde, uste dut —eta agian gustuen kontua da— psikologiaren alderdi gehiago landu beharko liratekeela. Gainera, tamalgarria da HUHEZIn egiten den irakasleen prestaketa denen eskura ez egotea. Era be-rean, exijentzia maila handiagoa behar dela uste dut, alor akademikoan baino gehiago, pertsonalean.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Lanean hasi eta ikasten jarraitu nahiko nuke. Oraindik ez dakit zer ikasi, baina argi daukat alor sozialarekin edota hezkuntzarekin ha-rremantzen den ikaskuntzaren bat jorratuko nukeela ikasten jarraituz gero (beste gradu bat; masterren bat ...).



ZABALIK

JON ANDER UBEDA KAZETARIA

Udal hauteskundeak: Podemos Ahal Dugu

Asteazkenean hiru urte bete ziren Andoaingo Podemos Ahal Dugu alderdia jendaurrean aurkeztu zenetik. 2016ko urtarrilaren 30ean Urigain kultur etxeko eserleku ia guztiak bete ziren, eta hizlarien artean Gipuzkoako ordezkari nagusia hurbildu zen. Besteak beste, Juantxo Iturria Batzar Nagusietako ordezkaria eta Nagua Alba Espainiako Kongresuko diputatua. Une gozoa bizi zuen alderdiak, gizartearen babes handia jasoz. 2015eko abenduak Hauteskunde Orokorretan, alderdi moreak Andoain ezustea eman zuen. 2339 boto eskuratu zituen, gainerako alderdi nagusi bakoitzari ehunka botoko alde ateraz (EH Bilduk 1542, PSE-EEK 1472, EAJ-PNVk 1345). Hauteskunde horiek eta hilabetera iritsi zen Andoaingo herritarren aurreko aurkezpen ekitaldia. Herriko Podemosen izenean hizlari aritu zena ezezaguna zen askorentzat. Urduri zegoen, horrelako protagonismoa hartzera ohiturarik ez zuela erakutsiz. Behin behineko bozeramaile hura Maria Teresa Santana zen.

Ordutik hona, azken hiru urteotan, Podemos alderdiaren baitan aldaketa handiak eman dira, kasu askotan traumatikoak. Andoain, ordea, Santanak eutsi egin dio. Eutsi, bada, zeri? Andoaingo Ahal Dugu Podemos alderdia iraunarazteari, bereziki. Ez da gutxi. Lantalde egonkor samarra duela antzeman daiteke, Olga Hernandez Ganemoseko zinegotziaren alboan. Udalgintzan jarduteko eta alderdia herrian gorpuzteko bata besteari elkar lagundu diola esan daiteke. 2019ko Udal hauteskundeak begibistan, lantaldea gogotsu dagoela dirudi. Izquierda Unidarekin sintonian daude, eta elkarrekin aurkezte erabakita daukate. 2015eko udaberrian IUk mesfidantza handia erakutsi zuen Ganemosekiko, baina agintaldi osoan zehar mesfidantza zena konfiantza bilakatu da. Ia erabaki guztietan ildo berean lerratu dira.

Duela lau urte, xelebrekeritzat har daitekeen Irabazi Andoain eta Ganemos Andoain alderdien izen bikiekin, 1000 boto batu zituzten. Podemosen urrezko aroan, hautes-zerrenda bakoitzak zinegotzi bana eskuratu zuen. Bakoitzak bere bidea eginez hasi zuen agintaldia, eta koalizio modura amaitu. Unidos Podemosen inguruan hamaika ikustera ohitu gara, eta oraindik ere erabilera instrumentala duen koalizio horrekin edozer gauza gerta daiteke. Andoain, halere, elkarrekin aurkeztuko direla erabakita daukate. Ibilbide orria zehaztuta dute.

2019ko maiatzera begira, Andoaingo Podemos Ahal Duguren inguruan galdera asko daude airean: Jaso dezakeen boto kopurua, nagusiena. Zaila da aurreikustea, gizarteak dagoeneko ez duelako lehen bezain erakargarri ikusten. Zaharkitu egin dela dirudi, beste alderdi batzuetako keriak errepikatuz.

2015eko abenduak eta 2016ko ekaineko Hauteskunde Orokorretan, Andoaingo herrikide askok eman zion Podemosi botoa. Boto hori, neurri handi batean, PP zigortzeko botoa izan zen. Udal hauteskundeetan ariketa oso ezberdina da: Botu-emailek ez dute PPren aurka botoa emango, Podemosen alde baizik. Hortxe du Santanak erronka handiena.

Bi zinegotzi eskuratzeko helburu izango dutela pentsa daiteke. Baina, kontrara, botoen gainbehera gertatuko balitz, nora joan daitezke duela lau urtetik hona galdutako botoak? PSE-EE, EH Bildu eta EAJ-PNVra; abstentziora...

PSE-EErentzat Podemos lehiakide zuzena da, ez du haientzat arrakasta desio. EAJ-PNVri ez dio gehiegi axola Podemos, moreek ordezkari txikia izan bitartean. EH Bildurentzat interesekoa da Podemosen baitan gerta daitekeena. Alkatetzari eusteko bidelaguneetakoa izan daitekeelako.

Interes handikoa da Andoain, politika gogoko duenarentzat.

POSTONTZIA

GURASOS GIZARTE MUGIMENDUA

"Esan baietz adostasunari"



Jendarteak ez du onartzen Donostiako (Zubieta) erraustegia martxan jartzeak osasunean eta ingurugiroan sortzen duen arriskua.

Arrisku horretaz ohartarazten dute egin diren ikerketek; batez ere, "Erraustegiaren arriskuaren hautesmatea" izeneko txostenak, Biodonostiak eta Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako osasun zuzendariordetzak idatzita.

Hitzartu prozesu sozialak hondakinen kudeaketa osasuntsu eta jasangarriaren inguruko eztabaida sortu du, baita eraginkorrenak diren neurri politikoak zehaztu ere. Ikuspegi demokratiko sakon batekin egindako ekimena izan da, eta profesional anitzek osatutako Berme

Batzordearen oniritzia izan du.

Herritarrek ondutako 2019-2030 Hiri Hondakien Kudeaketarako Plana ekimen horren emaitza eta ondorioa izan da. Bertan, jendarteak lehenetsitako prebentzio printzipioan oinarrituz, alternatiba teknikoa eta ekonomikoki bideragarria jasotzen da.

Azken hamabi urteotako agenda politikoa baldintzatu duen hondakinen gatazkak behin betiko irtenbide bakarra du: erakunde eta antolatutako jendarte zibilaren arteko elkarrikeria eta elkarlana. Erraustegia martxan jartzeko alde bakarreko irtenbideak ez du ixten ezta bideratzen ere, inondik inora, gatazka. Are

okerrago: beste 35 urteetarako luzatzen eta betikotzen du.

Osasuna, ingurugiroa, kohesioa eta bake soziala aukera bat merezi duten balioak dira. Horregatik guztiagatik behean sinatzen dugunok:

Lehenik.- Bat egiten dugu Hitzarturen Berme Batzordeak 2018ko abenduaren 29an Gipuzkoako Ahaldu Nagusiari eta Batzar Orokorretako presidenteari egindako eskaerarekin, non Hitzarturen ordezkariarekin elkartzea, ehundutako prozesua eta emaitzak aztertzea, eta elkarlanerako bideak ireki ditzatela eskatzen den; beti ere hondakinen kudeaketa osasuntsua eta jasangarria helburu izanik, eta adostasun sozial zabalean oinarrituta.

Bigarrenik.- Bat egiten dugu GuraSOSekin egin duen eskaerarekin; hots, erraustegian oinarritzen den Hiri Hondakinen Kudeaketa Planaren eztabaida eta onarpena gelditzea aipatutako elkarrikeria eta adostasun prozesua errazteko eta bideratzeko.

Hirugarrenik.- Bat egiten dugu GuraSOSekin deitu duen manifestazioarekin. "Esan Baietz adostasunari" lelopean, otsailaren 23an arratsaldeko 5etan Antiguako tuneletik irtengo da; eta jendarte osoari parte har dezan dei egiten diogu.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeiko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 38 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzaila: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: ERROITZ FALTSU MUGATZA	ALJATUAK: INSTITUTOS	TOKIKOM
BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:		
ANDOINGO UDALA	Urnietako Udala	
DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:		
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO	Gipuzkoako Foru Aldundia Hikuntza Berlindiasmerako Zuzendaritza	
ZIURTAGIA: Bitkain	BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.	

PROTAGONISTA

"Santa Eskean, auzotarrak gu noiz azalduko zain izaten dira"

MAITANE LOPEZ DE MUNAIN GOIBURUARRA ETA SEGA ELKARTEKO KIDEA

Xabier Lasa ANDOAIN

San Esteban Gazte Asanbladak (SEGA), urtean zehar, Goiburuko auzotarrak elkartu eta auzoa indarberrituko dituen ekimenak antolatu ohi ditu. Horietako bat da Santa Ageda bezperako erronda, 2011z geroztik errepikatzen dena.

Aurtengo Santa Agedako kantu erronda noiz hasiko duzue?

Astlehenean 15:00etan jarri dugu hitzordua. Entsegua egingo dugu, ezarriak berotzeko eta oroimena astintzeko. Hortik aurrera, baserriz baserri eta etxez etxe ibiliko gara. Iturriotz etxean egonaldia luzeagoa egingo dugu, indarberrituta segitzeko. Gaueko 22:00ak joko digute gu Txertotara afaltzera iristerako. Soinuarekin Nekane Zabala izango dugu, eta koplekin berriz, Ion Beloki eta Unai Ormaetxea.

Goiburuko bazter guztietara iristen saiatzen zarete.

Bai, noski. Urrutienera, kalera bertara iristen gara.



Maitane Lopez de Munain SEGA elkarte kidea da. AIURRI

Istuitzara eta Iturriotzera, hain zuzen. Eta baserri giroan, Leitzarango bailaran dagoen Bista Ederrera ere bai. Lursailetan handia da Goiburu auzoa, eta alde batetik besterako distantziak

murritzeko eta denetara iristeko Extebe anaiaren kamioia eta furgoneta erabiltzen ditugu. 20-25 lagun izaten gara kantuan, eta denak kabitzen gara kamioian; ikustekoa izaten da

zer nolako jai giroa sortzen den hara eta hona goazenean, Nekanerren soinuaren erritmora!

Goiburuko auzotarrentzat ezinbesteko hitzordu bilakatu da...

Baserri eta etxeetako jendeak badaki, goiz ala berandu, azaltzekoak garela; etxe atarietan edukitzen ditugu maiz, gu noiz helduko zain. Une hunkigarriak izaten dira, ez bakarrik baserrietan bizi direnentzat, baita guretzat ere. Egundoko harrera egiten baitigute. Dena esatera, tristura pixka bat ere eragiten digu errondak; izan ere, urtez urte, ohartzen ari gara baserriak husten ari direla, gazteak badoazela kalera bizitzera, eta bertan bizitzen geratu direnak adinez aurrera doazela. Errealitate horrek zer pentsatua ematen digu.

Belaunaldi ezberdinak biltzen dituen Santa eskea da zuena.

Hala da, zorionez. Helduak, euren seme-alabak eta bilobak elkartzeko ekitaldi polita izaten da Santa Ageda bezperako kantu erronda. Goiburuko auzotarren artean oraindik ere sendo eusten zaio bertakoa izatearen identitateari, eta gainera, jai egunak elkarrekin igarotzeko gogoari.

HAU ERE BADUGU!

Jende Xumea Andoain egitasmoa



“2019ko udan Proyde-Proega gobernuz kanpoko erakundearen proiektu batekin Bolivian boluntariadotzan jardungo dugun taldea gara”, horixe da Facebook orrialdean aurkezpen gisa jarri duten goiburua. Egitasmoa gizarteratzeko kamisetak eta telazko poltsak ekoiztu dituzte, kolore eta neurri ezberdinetan. Maider Arabaolazak egin die diseinua eta erosteko aukera dago Facebook edota Instagram kontuetan sartuz. E-posta: jendexumeaandoain@gmail.com.

Edukiontzi berriaren ezarketa Andoainen



Eztabaida digitalen kabia "Andoaindarras y punto" Facebook orrialdea da. Bi mila eta lauhun lagunetik gora izena emanda daude bertan. Gehienak ikusle modura, eta gutxi batzuk iritzia emanez. Ia kasu guztietan gaztelaniaz. Azken asteotan, errefusa bereizteko edukiontzi berriaren harira, txinpartak sortu dira. Sistema berria ez denean, informazio falta kritikatu izan da. Adostasun politiko zabala duen sistema berriaren defentsa zehatza eta zorrotza egiten ari dira, bereziki, Ipar Haizea taldeko kideak.

DATUA

Porrotx eta Baltasar

Joan zen larunbatean izan zen, Bastero Kulturgunean. Pailazoan "Musua" ikuskizunaren bigarren saioa amaitzen ari zela, Porrotx pailazoa eskerrak ematen hasi zen. Eta horien artean "Andoaingo Baltasar erregeari muxu handia" eskaini zioten. Bertan ziren guraso askok keinu horri txaloekin erantzun zuten. Porrotxen ezusterako, Baltasarren paperean aritu zen pertsona ikuslearen artean zegoen. Pailazoak ikustera hurbildu zen Basterora, bere familiarekin. Saioa amaituta, antzokiaren atarian, pailazoak muxu ematen hasi eta Porrotxek besarkatu zuen lehen familia Baltasarrena izan zen.

EFEMERIDEA

Manuel Larramendiren heriotzaren urteurrena

Urtarrilaren 29an 253 urte bete ziren Manuel Garagorri eta Larramendi, Aita Larramendi euskaldun gehienentzat, Loiolako Santutegian hil zena. Andoaindarrak 76 urte zituen eta hil baino sei hilabete lehenago gaisotu eta makaldu zen. Ordura arte primerako osasuna izan zuen.

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak eguna gogoratuz bere egoitzako ikurrina mastatik bildu egin zuen eta ez du berriro ipiniko Santa Ageda bezpera arte. Urtero egiten diote keinu hori andoaindar handiari eta aurtun errepikatu egin da.

Bazkunean adierazi dute datorren urterako, beste maila eta irismen bateko omenaldia antolatzen ahaleginduko direla, herrian Larramendiren bizitza eta egintza ezagutzeko eta gogoratzeko lagungarri izango dena.

Bestetik, adierazi dute hasiak direla idazten Garagorrienea izeneko egitasmoa gorpuzteko estrategiaren ildo nagusiak, eta euren asmoa dela – Bazkuneakoena – agintaldia amaitzen ari den Udaltzari aurkeztea apirila baino lehen egitasmo hori, Euskal Herri osoari begira prestatzen ari



direna Manuel Larramendiren irudia, obra eta egintza ezagutzera eman eta hura aldarrikatzeko gaur egun euskararen erabileraren alde egin beharreko lanaren aitzindari gisa.

GARA

ADIERAZPENA

GARA EGUNKARIKO LANTALDEA | DONOSTIA, 2019KO URTARRILAREN 30EAN

Lapurreta bat eta eraso bat prentsa askatasunari

Gaur hogei urte betetzen dira GARA sortu zela. “Egin” itxi eta bi hamarkada geroago eta Baltasar Garzon gure egunkariarekin gauza bera egiten saiatu eta 15 urtera, hain zuzen berak ilegalki itxitako egunkariaren zorra guri leporatuz, gaur iragarri behar dugu aurreakordio batera iritsi garela Gizarte Segurantzarekin. Horrela, beraz, erresistentzia aro bati amaiera ematen diogu.

2003an Baltasar Garzonek hamabost eguneko epea eman zigun 4,7 milioi euro haiek ordaintzeko edo ixteko. Gogorarazi beharra dago urte horretan Audientzia Nazionalak “Egunkaria” itxi zuela. Euskal prentsaren aurkako eraso bateratua izan zen. Geroztik hamabost urtez eutsi diogu eta une honetarako prestatu egin gara, baina horrek ez du esan nahi kolpe latz bat ez denik, soseguz eta inteligentziaz kudeatu beharko duguna.

“Egin”-en zorra ordainaraztea erabat bidegabea da. Justizia espainiarrak ilegalki itxi zuen, bere arduradunak espetxean eta baldintza izugarrietan

izan zituen denbora ikaragarri luzez, ondoren bere ondarea suntsitu egin zuen eta gure bila etortzea erabaki zuen. Milaka pertsonaren ekarpenari esker lortutako kapital berria, lantalde berria eta proiektu berria izan arren, “enpresen ondorengotza ideologikoa” ezarri ziguten eta zorra leporatu.

Hori 2003an gertatu zen. Irmoki uste dugu 2019an Euskal Herrian soilik gutxiengo autoritario eta marjinal batek nahi duela komunikabide baten itxiera, edo zuzenean eta zeharka 200 langile baino gehiagori lana ematen dien enpresa baten porrot behartua. Zentzugabekeria itzela da eta horregatik eskatzen diegu babes euskal instituzioei, eta laguntza gizarteari.

Gizarte Segurantzari dagokion hitzarmenaren parte oso latza da. Datozen urteetan, sei hilabetero, milioi erdi euroko ordainketak egitera behartzen gaitu. Hartzekodunen hitzarmenaren amaieran, guztira, 3 milioi euro baino gehiago izango dira. Urte oso bateko soldata kostu guztia baino handiagoa da; hau da, gure

langile guztien urtebeteko soldatak baino handiagoa. Krisi iraunkorrean dagoen eta birmoldaketa gogotik saiatuta egin behar izan duen sektore bat da hau. Gure inguruko inongo hedabidek ezingo luke horrelako kolpe bat jasan. Gure inguruko inolako enpresak ez du horrelako jazarpenik jasan. Hau lapurreta bat da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu konponbidean lagundu diguten instituzio, erakunde eta pertsona guztiei. Baita gainerako hartzekodunei ere. Oraindik beraien babes behar dugu zoritxarreko gertakari hau ixteko. Haiei adierazi diegun bezala, egoera horretara iritsi gara gure hedabideen bideragarritasuna bermatzeko. Konfiantza dugu gure buruan. Trantsizio digitala arrakastaz egiten ari gara, eta abian jarri dugun ereduaren bidez harpidetzak eta komunitate konprometitu baten ideia bateratu ditugu. Diskriminazioa pairatu dugu baina geure burua baliarazi dugu. Gipuzkoako kioskoetan bigarren hedabidea izaten jarraitzen baitugu, eta hirugarrena Hego Euskal

Herriko beste hiru lurraldeetan. Eta interneten indartsu ari gara lehiatzen gurea baino askoz handiagoak diren eta laguntza askoz handiagoak jasotzen dituzten enpresekin. Kolpea jasan arren, gure asmoa da debate publikoan eragiten jarraitzea, pertsona kritikoak sortuz eta boterearen kontrola eginez.

Solaskidetza garai bat zabalduko dugu instituzioekin, alderdiekin eta gizarte zibilarekin. Era berean, barne gogoeta bati ere ekin diogu, kolpe honi nola aurre egin hausnartzeko. Gure sorreraz geroztik ez dugu babes ekonomikorik eskatu. Eta orain bitartekoak jarriko ditugu eraso honen aurrean laguntza eraginkor bat bideratzeko eta elkartasuna egituratzeko. Beti esan dugu gure konpromisoa euskal herritarrekin eta irakurleekin daukagula. Gaur esaten diegu borrokan jarraituko dugula kazetaritza politikoa, independentea eta profesionala eskaintzeko. Eta horrexetarako, etorkizunera begiratzeko, eskatzen dugu zuen laguntza.



ANE LABAKA
ELKARRIZKETAK
GARBINE BIURRUN

ttap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.



DESKARGATU
APP Store-n

Ttap euskarazko aldizkari digitala eta multimedia deskargatu zure mugikor edo tabletean.



DESKARGATU
Play Store-n

Mendizaletasuna eta elkartasuna film berean

MENDIZALETASUNA Ikusmina piztu zuen Udalak eta Euskaldunak Basteron eskaini zuten "Pumori, mendiaren alaba" dokumentalak. 400 ikusle bildu zen Basteron, tartean Andoaingo eta eskualdeko mendizale ugari.



Suku Maya Nepalgo gaztea, dokumentalean. BALEUKO

Xabier Lasa ANDOAIN

Ikus-entzunezkoak batzuk zein besteak hunkitzea lortu zuen, hiru istorio trebezia handiz uztartuz: Pumori gailurrean hil ziren bost euskal mendizaleen tragedia, Alex Txikonek mendi horretan iaz egin zuen igoera eta Suku Maya Nepalgo gaztearen bizipenak. Emanaldiaren atarian dokumentalean parte hartu duen Juanfer Azkona mendigoizaleak eta Unai Ugartemendia andoaindarrak aurkezpen lanak egin zituzten.



Juanfer Azkona eta Unai Ugartemendia aurkezle lanetan aritu ziren. AIURRI

Legarreta eta Lasa 'Ur Handitan' telebista saioan

"Pumori, mendiaren alaba" dokumentala ikustera hurbildu ziren asko eta asko, gau berean ETB1eko pantailari ipini zioten arreta. Mendizaletasuna eta istripuak izan zituen hizpide "Ur Handitan" saioak. Mikel Legarreta urnietarra eta Arkaitz Lasa andoaindarrak pantailan agertu ziren, euren bizipenak azalduz.

Kontakizunetako bat 2007ko urtarrilean izan zen. Piriniotan



Mikel Legarreta eta Arkaitz Lasa.

Taillongo iparraldean eskalatzen ari zirela, Bera eta Lesakako hiru mendizaleen tragediaren lekuko izan ziren.

Bigarren kontakizuna Panticosan elurrezko korridorea igotzen ari zirenekoan oinarritzen da. Arkaitz Lasak igoera hartan istripua izan zuen. Erabat izoztu egin zitzaizkion eskuko hatzak, eta zorabiatuta amildu egin zen. Saioa ikusgai dago Internet sarean.

ZABALIK



ANDONI URBISTONDO KAZETARIA

Mendiaren alaba

Kontzientzia, edo arima astintzen duen dokumentala izan zen ikusgai asteartean Andoaingo Bastero Kulturgunean: "Pumori Mendiaren Alaba". Alex Txikon eta Baleuko ekoizpen etxeak sortua, 2001ean Euskal Herria astindu zuen istripu beltz bat du ardatz. Urola eta Sakana eskualdetako bost mendizale gazte Himalayako Pumori mendian geratu ziren betirako (7.161 metro), elur jausi batek harrapatuta: Beñat Arrue, Iñaki Aiertza, Aritz Artieda, Javi Arkauz eta Cesar Nieto.

Tragediaren berri beheko kanpamenduan jaso zuten beste bost lagunak bizipenak kontatzen dira hainbat lekukotzarekin, Alex Txikon mendizalearen lokuzioa entzuten den bitartean.

Ordubeteko bilduman, gizakiok malko isuriaren mugan jarriko dituen une ugari daude. Eta hori bizitza beti heriotzaren gainetik jartzeko nahia, haria garatuz lortzen da: zorigaitzaren gainetik bizipoza jarritz, dolauren gainetik bizitza berri baten jaiotza goretsiz, tristuraren gainetik esperantza bilatuz. Mendizale sutsu batzuen zoritxarrak Suku Maya Nepalgo gaztetxoaren txinparta du kontrapuntua. Beñat Arrue Aizarnako mendizale gaztearen heriotzak Thame herriko Suku neskatokak bizirik irauteko

daraman borroka kontatzen da, iragana-oraina-etorkizuna jokoan etengabe murgilduz.

Dokumentala Suku Mayak ikastola batera egiten duen bisitarekin hasten da, euskara jatorrean mintzatuz aho bete hortz begiratzen dioten haurrez inguratuta. Lagunen heriotza gertutik bizi izan

zuten mendizaleen testigantza gordina dator gero, dramatismoan jausi gabe, eta gazteen heriotzari Beñat Arruek zeraman argazki batek hartzen dio txanda, dokumentalaren ardatza, hain zuzen ere: Suku Mayaren argazkia, haur txikia zenean. Argazki horri tiraka, Peio Arrue eta Arantxa Gurrutxaga Beñaten gurasoak Maya ezagutzera joaten dira Nepalera, eta beraiek bezala, Pumorin geratu ziren mendizaleen beste guraso guztiak.

Alex Txikonek Pumorira 2017-2018ko neguan egin zuen igoerako trazak sartzen dira tarteka, eta gailurreko momentua, Sukuren osasun egoera hobetzeko pauso guztien ondoren erakusten du Aizarnan, Nepalen balego bezala. Nepalen, ziur aski, heriotza mantsoa izango zuen, baina orain bizitzari eusten dio, tinko. Eta poliki doa, indartzen.

Oroitzapena bezala. 2001eko urriko zubi hartan Pirinioetan nintzen. Ez naiz ondo gogoratzen non. Istripuaren berri eduki eta Ramon Olasagasti lankidearekin Azpeitiko frontoian egin zen omenaldian izan nintzen, egun batzuk geroago. Herria saminduta zen. Ez urrun, hiru aste atzera, Aizarnara enkargu bat egitera joan eta Suku ezagutu nuen aurrez aurre. Bizitzaren oroitzapenak. Bost mendizaleen senide eta lagunak urtero Aralarko San Migelen biltzen direnean bezala, Pumorin geratu ziren gazteak oroitzeko. Oroitzen dena ez baita inoiz hiltzen.

www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



• Iritzia
• Postontzia

Egunean eguneko albisteak sarean



Udan Saharako haurrak hartzeko deialdia



'Pausoz pauso. Martxoak 8 emakume' deialdia



Oria eta Leitzaran ibaiak Andoain barrena



Dardoka elkarte estatutu mailako txapelketan

Edukiontzi grisa itxita, astelehenean hasita

Andoaingo Udalak aditzera eman duenez, otsailaren 4an hasita errefusa bereizteko edukiontziak txartelarekin bakarrik ireki ahal izango dira. Sistema indarrean jartzeko informazio kanpaina larunbata bitarte zabalduko da, auzoz auzo



Joan zen astean, eta aste honetan zehar, edukiontzi berria Andoain osora zabaltzen aritu dira. **AIURRI**

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Azken asteetan iragarri bezala, Udalak errefusa bereizteko edukiontzia itxi egingo du. Zehazki, datorren astelehenean. Zaborren bilketan aro berri bati ekingo diote Andoainean, modu horretan. Asteazken lau aldiz erabili ahal izango da, txartela erabilita. Txartel bakarra da eta berdin-berdin erabili daiteke edukiontzi marroia edota grisa zabalteko. Azken egunetan bi lagun informazio osoa zabaltzen ari dira, auzoz auzo. Udalak bere aldetik informazio kanpaina

egin du etxez etxe eskuorriak banatuz, eta kalean eta hedabideetan sentsibilizazio kanpainak burutuz. Informazioaren premian dagoenak Ataria arreta bulegoan aurkituko du informazio osoa. Baita, datozen egunetan auzoz auzo zabalik izango den informazio gune ibiltarian ere. Hauek azken hitzorduak:

- Urtarrilak 31, osteguna: 16:00-19:30. Galardi ondian.
- Otsailak 1, ostirala: 16:00-19:30. Etxeberrieta.
- Otsailak 2, larunbata: 10:30-14:00. Merkaturia.

Bandoa

Bere garaian organikoari dagoen ontzia eta txartela hartu ez zuten bizilagunei, Udalak gutun bidez txartel bana helarazi zien. Antza denez, gutun horiek guztiak ez dira hartzailengana iritsi. Hori dela eta, Udala portal guztietara bandoa zabaltzen ari da. Txartela ez dutenei zuzenduta dago: "Aurreko asteetan txartelak bidali ditugu etxeetara, baina posible da etxeren batera iritsi ez izana. Zure kasua hori bada, mesedez pasa zaitez udaletxetik eta zuzenean eskuratuko duzu".

Erroitz kaleko pasabidea

La Salle Berrozpe ikastetxearen sarbideetako baten parean, eta Arantzibia plaza eta Leizotz aldera doan Erroitz kalearen bazterrean zuhaitzaren sustraiak espaloia eta errepidea eraldatzen ari dira. Oinezkoentzat eta gidarientzat oztopo bilakatzen ari da. Arriskuak saiheste aldera, joan zen astelehenean beharginak ingurua txukuntzeari ekin zioten.



Maria Teresa Santana, Podemoseko alkategaia

Podemos Ahal Dugu alderdia hautagaien aukeraketa egiten ari da, egun hauetan. Andoaingo alkatetzarako hautagai bakarra Santana izango da, alderdiko idazkari orokorra era berean. Hautes-zerrendako hainbat hautagaien izenak ezagutarazi dituzte

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Ezustekorik ez da izan, eta Andoaingo alderdiko idazkari orokorra den Maria Teresa Santana izango da alkatetzarako hautagai bakarra. Harekin batera aurkeztuko diren hautagaiak zein postutan joango diren erabakitzea falta da. Hori datorren astean jakitea espero da. Zerrenda osatzeko hautagaien artean ezagunenak Olga Hernandez edota Julen Lorenzo dira. Hernandez egun Ganemos alderdiko zinegotzia da. Lorenzo Ipar Haizea erraustegiaren aurkako taldeko kidea eta *Andoaindarras y punto* Facebook orrialdeko erabiltzaile ezaguna da. Internet atari horretan herriko afera asko hizpide izaten da, eta eztabaida digital gehienetan Lorenzok parte hartze bizia izaten du. Bereziki, Udal jardunari loturikoak. Beste hiru hautagaien izenak publiko egin dira: Virginia Ayerbe, Nagore Zalakain eta Jose Maria Iparragirre. Podemoseko kideak, boto bidez, hautagaien ordena zein izango den erabakitzeke aukera izaten ari dira. Otsailaren 8rako behin betiko hautagaien zerrenda iragartzekotan dira.

Podemosek eta IU-EB alderdiek "Unidos Podemos" koalizio bezala elkarrekin aurkezte era bakita daukate Andoainen, al-



Santana hizlari 2016ko urtarrilaren 30ean, alderdiaren aurkezpenean. AIURRI

derdi bakoitzak horrela erabakita. Aldaketarik ez badago, maiatzeko hautes-zerrenda osatuko duten kideak Podemoseko eta IU-EBko ordezkariak izango dira. IUko ordezkarien izenak ez dituzte oraindik adiztera eman.

ZERRENDAKIDEEN ARTEAN DAUDE OLGA HERNANDEZ ETA JULEN LORENZO ANDOAINDARRAK

Hiru urteko ibilbidea Andoainen Sorrera ekitaldia Urigainen izan zen, 2016ko urtarrilaren 30ean. Agerraldi hartan Teresa Santana eta David Guirado andoaindarrek hitz egin zuten. Andoaingo eta Hernaniko taldeetako kide ziren, hurrenez hurren.

ALDAKETARIK EZEAN, PODEMOS ETA IU-EB ELKARREKIN AURKEZTUKO DIRA ANDOAINEN



Andoni Alvarez eta Esti Mujika, jardunaldiaren aurkezpenean. EHBILDU

"Andoain 2029" jardunaldiak antolatu ditu EH Bilduk

Otsailaren 5ean hasi eta martxoaren 2ra bitarte, hausnarketa saio ezberdinak egingo dituzte Bilgunean

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Andoaingo EH Bilduk "Andoain 2029" izeneko jardunaldiak antolatuko dituela iragarri du. Jardunaldiak Zumea kalean duten Bilgunean egingo dituzte, otsailaren 5ean hasi eta martxoaren 2ra bitarte. Hausnarketa sustatzea helburu dutela adierazi dute: "Dugun egoeratik abiatuz, zein nolako Andoain nahi dugun pentsatu behar dugu, zein nolako zerbitzuak, zein azpiegitura eta zein jendarte eredu nahi dugun eztabaidan jarri eta ondorioztatzeko hausnarketa foroa izateko helburuz egiten dena. Maiatzeko hauteskundeetako programa elektoraletan hausnarketa honetatik ateratakoa jaso nahi dugu, bide batez. Datozen lau urteetan Udal Gobenuan egoteko ardura izan ezkerro, gobernu programa egingarri eta sinesgarri bat aurkezteko konpromisoa baitugu".

Jardunaldietan politika feminista, gazteria, kultura, hezkuntza, euskara, aniztasuna, jarduer fisikoa eta kirola, ingurumena, gatazkaren konponbidea, adinekoak edota hirigintza hizpide hartuko dituzte. Bileren bidez egingo dituzte hausnarketa saioak, eta parte hartu nahi duenak internet bidez izena eman beharko du. Izena emateko e-posta honakoa da: ehbilduan-doain@gmail.com.

Andoni Alvarez alkategaia eta Esti Mujika zinegotziak, bideo bidez, jardunaldietan parte hartzeko deia luzatu dute.

JARDUNALDIETAN POLITIKA FEMINISTA, GAZTERIA EDOTA HIRIGINTZA HIZPIDE IZANGO DITUZTE

Irantzu Varela Andoainen hizlari

Datorren otsailaren 5ean abiatuko da EH Bilduren jardunaldi prozesua. Lehen egun horretarako gonbidatu ezaguna hurbilduko da Zumea kaleko Bilgunea: Irantzu Varela feminista, Euskal Herrian eta espainiar estatuan erreferentzia bilakatu dena. Hitzaldi irekia eskainiko du, 19:00tan hasita, "M8-rako erronkak" izenburupean.



Irantzu Varela. DURANGON





Sarobe kulturgunea ikusleaz bete zen, larunbat arratsaldean. Joxemari Berasategiren zuzendaritzapean, Egape antzerki eskolako ikasleek antzeppen bikaina eskaini zuten. AIURRI

Sorginen kimu berriak sortu dira

Munduan ez dago Urnietako sorginen izpiritua desagertaraziko duen inkisidorerik ezta salatiririk. Inkisizioaren sutzarrean iraganean erretako euskal sorgin haien kimu berriak bizirik eta bazterrak nahasteko gogoz azaldu ziren Saroben

Xabier Lasa URNIETA

Larunbatean Urnietako herriak antzerkirako zaletasuna eta harrobia badaukala agerian geratu zen beste behin ere. Oholtza ondo menperatuz jardun zuten Egapeko eskolaz kanpoko antzerki taldeko ikasleek; bai txikienean, (7, 8 eta 9 urte) eta baita helduxeagoek ere (10, 11 eta 12 urte). Antzerkirako jauzia eman duten Olatz Iturzaeta, Luke Goñi, Clara Claudino eta Vanesa Sanchez gurasoak ez ziren atzean geratu, nork bere pertsonaia graziaz eta abiltan

sunez interpretatuz. Denak ere Joxe Mari Berasategiren aginduetara jarri ziren. Sarobe bete zuten, ikusleei ikuskizun gozagarria eskainiz. Berasategi zuzendariak pasioz bizi du antzerkia, eta badauka pasio hori bere esanetara jartzen direnei helarazteko trebezia ere.

Pertsonai ugariko antzezlanak

Sorginak, sorgintxoak, ipotxak, baserritarak, inkisidoreak... pertsonai ugari oholtzaratu ziren "Sorginak sutara" antzezlanean; etengabea izan zen

pertsonaia horien joan etorria, eta ikusleei ez zieten aspertzeko betarik ere eskaini.

Herriko salatariaren eta bi inkisidoreen ekimenez erre zituzten sorginen errautsetatik kimu berriak sortuz amaitu zen ikuskizuna. Sarobeko armailetan ordubetez erne eta adi egon ziren ikusleak, nagusiki gurasoak, haur eta gazteak, lagunak eta antzerkizaleak.

Txalo zaparrada eskaini zieten aktore gazte eta ez hain gazteei, egindako lanari aitortza eginez horrela.



Antzerki emanaldia helduen saioarekin hasi zen. AIURRI



UDALA

Haur ikuskizuna

Igande honetan, arratsaldeko 17:30ean hasita, adin guztiei zuzendutako 'Mr. Train' ikuskizuna antolatu dute Saroben. Sinposiak zera dio: "Mr. Traini ez zaio batere gustatzen ondoan duen txakurra. Eguna joan eta eguna etorri, Mr. Train-ek bere esku dagoen guztia egingo du txakurra geltokitik urrutiratzeko, baina txakurra beti geltokira itzuliko da".

Urte zaila izan da landare eta basogintza alorretan

ENBA Euskal Nekazarien Batasuna nekazal sindikatuak bere XXVII. batzarra ospatu zuen igandean, Salesiar ikastetxean. Sektoreko eragile ezberdinekin batera, herri agintariak hurbildu ziren hitzordura. Lagunarteko bazkariarekin amaitu zen eguna



Urnietako Salesiar ikastetxean elkartu ziren sindikatuko bazkideak. ALDUNDIA

Erredakzioa URNIETA

ENBA nekazal sindikatuak bere XXVII. batzarra ospatu zuen igandean, Salesiar ikastetxean. Sektoreko eragile ezberdinekin batera, herri agintariak hurbildu ziren hitzordura. Hots, Mikel Pagola Urnietako alkatea, Ainhoa Aizpuru Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako diputatua eta Bittor Oroz, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea.

ENBAk batzarraren kronika argitara eman du bere webgunean, eta bertan Iñaki Goenaga lehendakariaren azalpenak bildu dituzte. Goenagak sektorearen garrantzia azpimarratu zuen, bere adierazpenean: "Gizarteak ezer aitortu baino lehen, baserritarrok argi izan behar dugu, gure lanak garrantzia duela, eta gure ogibideak etorkizuna. Are gehiago, elikadura osasuntsuari eta ingurumenari ematen dion gizarte batean. Baserritarraz Harro lema aukeratzeak garrantzi handia du. Baserritarron lana aldarrikatzeaz gain, ekoizpena-

rekin batera doazen onurak ere aldarrikatu nahi dugulako -paisaia, ura, basoak, mendiko larrak-. Gizartearen aitortza eta babesa izanez gero, askoz xumurragoa izango da gazteak base-rira erakartzea".

Urte konplikatu nekazariarentzat

Sektorea oro har hartuta, iazkoa urte zaila izan zela adierazi zuten. Berezik, Gipuzkoan: "Landare-rian, klimatologiaren eraginez, ekoizpena jaitsi egin da: baratxagintzan %13,7a, mahastian %8,2a eta fruitaren ekoizpenean %33,2an. Abeltzaintzaren alorrean aldiz, ekoizpenaren bolumenean eta prezioetan egoera egonkorra bizi dugu. Basogintzaren alorrean, oso urte kaskarra izan da, pinuaren banda marroiaren erabateko leherketa eta zabalkuntzaren eraginez. Pinu mozketaren

"EKOIZPENERAKO BEHARREZKO DITUGUN KOSTUAK DEXENTE IGO DIRA"

IÑAKI GOENAGA, ENBA



Iñaki Goenaga urnietarra ENBA sindikatuko lehendakaria da. ENBA

%15ean jaitsi da. Ekoizpenerako beharrezko ditugun kostuak dexente igo dira: pentsua %4,8a, argindarra eta erregaia %4a eta ongariak %4,4a".

Kontuak aditzera emateaz gain, batzarkideek ospakizuna egiteko aukera baliatu zuten. Lehenik bertsolariak aritu ziren kantuan. Aurtengoan Unai Agirre, Aitor Mendiluze eta Javier Ziarda aritu dira bertsotan. Ondoren, bazkideen arteko bazkaria egin zuten Eula sagardotegian.

Kantu ikastaroa Aurrera Gure Ametsarekin

Euskal kantagintzan sakontzeko ikastaroa Lekaion, otsailaren 1etik maiatzaren 31ra

Erredakzioa URNIETA

Aurrera Gure Ametsa dantza taldeak euskal kulturaren transmisioari heldu nahi dio, oraingoan kantuen bitartez. "Lagunartean gure kantuen errepertorioa aberastuko dugu. Anima zaitez eta parte hartu gurekin", hortxe antolatzaileen gonbitea.

Ikasturtea hastear da, eta ize-na emateko epea urtarrilaren 31n amaitzen da. Lekaion biltzekoak dira, hilean 3 aldiz. Eguna eta ordua, berriz, ostirala eta iluntzeko 19:00-20:15 tarte hori. Matrikulazioaren prezioa 60 eurokoa izango da. Kantatzeaz gain, ikastaroan zehar kantatzen denaren testuinguruari buruzko azalpenak emango dituzte: "Gure kantu eta kontuez goatzeko hitzordu ezin atseginagoa".

Denda Berri elkartearen batzar orokorra

Otsailaren 9an izango da, larunbatekin, arratsaldeko 17:00etatik aurrera

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Denda Berri pentsiodun eta zaharren elkarteak ohi-ko batzar orokorrerako deialdia egin du, otsaileko bigarren astebururako. 2018eko diru-sarrerara eta gastuen balantzearen aurkezpena, eta 2019rako ekintza plana eta aurrekontua aztergai izango dituzte. Galde-erreguetarako tartea izango da ere. Lehen deialdia arratsaldeko 17:00tan izango da, eta bigarrena 17:30etik aurrera.

Sagardotegia

Otsailaren 16an sagardotegi eguna ospatuko dutela iragarri dute. Izena emateko azken eguna otsailaren 8a izango da, elkar-terko bulegoan bertan. 60 lagunentzako tokia izango da.



SANTA KRUZ ELKARTEA

Gipuzkoako txapeldunak

Santa Kruz elkartea Gipuzkoako taldekako bolo txapeldun bilakatu da, joan zen larunbatean Lasarte-Oriako bolatokian nagusitu eta gero. Txapeldunak Martin Lizeaga, Jokin Lizeaga, Xabier Lizeaga, Benito Loitegi, Imanol Iruretagoiena eta Xabier Iruretagoiena dira.

“Gustuko dut herriko lasterketetan aritzea”

LASTERKETAK Asier Martinez urnietarra ez dago bere onenean, eta gero eta gehiago kostatzen ari zaio errepidera irten eta zangoak astintzea. Baina korrika behar du, bizitza ematen dio. Igandean Bosko Herri Krosean lehiatuko da

Andoni Urbistondo URNIETA

Urnietarrek ezagutzen duten lasterkariren bat bada, Asier Martinez da hori (36 urte). Herrian antolatu izan diren lasterketa guztietan parte hartu ohi du.

Igandean da proba. Garaipena lortzeko borrokan izango al zara?

Ez, ez, ez nago ondo. Top 10 egiten badut konforme. Entrenamendu on bat egin eta pixkanaka martxa hartzeko erronka dut.

Ze asmo duzu, bada, aurtun?

Ez daukat helburu finkorik. Sasoi puntu ona lortzen saiatzen ari naiz, martxoa eta apirilera begira. 36 urte ditut dagoeneko, eta geroz eta gehiago kostatzen zait entrenatzera irtetea.

Nola antolatzen duzu astea?

Bi egunetan serieak egiten ditut kiroldegiko futbol zelaian, errepidean ordubeteko saio pare bat, eta asteburuetan larzteagoako, ordu eta erdi edo.

Lesioekin-eta, nahikoa komeri, ezta?

Bai. Diafragmarekin arazoak izan ditut. Bizkarrean kurbatura antzekoa daukat, eta alde batean tentsio handia eragiten dit horrek, halako gain karga. Barearen antzeko zerbait jartzen zait ahalegin handiak egiten ditudanean, eta geratu egin behar izaten naiz. Azkenekoz Donostiako maratonia prestatzen ari nintzela gertatu zitzaidan, arazo



Abenduaren 23an, Asteasuko kros solidarioan, irabazle izan zen. **AIURRI**

horregatik zuntz haustura bat izan nuen, eta prestakuntza osoa bertan behera utzi behar izan nuen. Lesioak izatea ohikoa da, baina nik, nonbait, lesionatzeko joera errazagoa daukat. Aintzat hartu behar da maratonia prestatzeko 100 kilometrotik gora egin behar direla astero, eta hori kilometro kopuru handia da.

Zergatik duzu gogoko korrika egitea?

Sasoi puntu ona azkar lortzen dudalako, entrenamendu batzuk astean, ordubete baino gutxiago aldiro, eta kito.

Urnietan antolatu izan diren proba guztietan parte hartu zalea zara.

Bai. San Silbestrean eta On Bosko lasterketan parte hartu ohi dut. Mendiko maratonia, Herri Bira eta beste ere bai, antolatzen zirenean. Gustuko dut herrian korritzea. Mendiko maratonia eta Herri Bira desgertu ziren, eta uste dut denok dugula horren erantzukizun zati bat, ez dugulako gehiegi lagundu.

Eguraldi hotz eta petrala iragarri dute iganderako. Ze eguraldirekin moldatzen zara ondoen?

Eguraldi freskoarekin. Hotz-hotza ere ez, 64 kilorekin hotzak zigortu egiten duelako.



Azken asteetan sare sozialen bidez zabaldu dituzte hainbat probatako irudiak. **ANDOINGO**

Garaipenik ez baina joko maila ona erakutsi dute urnietarrek

PILOTA UKE taldeko partiden kronikak pala motzean eta gomazko paleta partida ezberdinetan

Erredakzioa URNIETA

Urnietara 31-40 Adurtza

Xabier Garagorri-Javier Millet

EHko pala motzeko txapelketan, talde indartsuaren aurka jokatu zuten. Pare pare ibilita ere, aurkariek hobeto asmatu zuen. Edozeinen aurka ondo ibil daitezkeela erakutsi dute.

Tolosa 25-21 Urnieta

Jon Iruretagoiena-Unai Arozena

Gomazko paletan, hasiera kas-karra izan zuten (9-1). 21na berdintzea lortu zuten.

Ikasberri 25-9 Urnieta

Jon Iturbe-Xabier Pavon

Bikote indartsuaren aurka, ezer gutxi egin ahal izan zuten.



Nahikari Garcia Belgikaren aurkako partidari, urtarrean. **RFEF**

Denboraldi bikaina

ESKUBALOIA

Leizaran Eskubaloia Urdina infantil mailako taldeak Gipuzkoako txapelketako azken fasea jokatzeko sailkapena lortu du. Dagoeneko, azken fase hori jokatu gabe, egin duten denboraldia bikaina dela esan daiteke. Igande fase horretako lehen partida jokatu dute, Allurralden. 11:45etan hasita, Ereintza taldearen aurka.



JOSEMA FERNANDEZ

Munduko txapelketa jokatzeko bidean da Nahikari Garcia

FUTBOLA Urnietar jokalaria gazteak Espainiako Selekzioko azken bi partidatan jokatu du, urtarrean biak

Erredakzioa URNIETA

Lagunarteko partidak izan dira, ekainera begira garrantzia handikoak direnak. Nahikari Garcia urnietararentzat lorpen handia litzateke Frantzia jokatu den Munduko txapelketan aritzea.

Bide horretan doa, urtarreko bi partidatan jokatzeko aukera izan baitu. Belgikaren aurka partida osoa, eta AEBren aurka 12 minutu. Otsailean selekzioak Algarven hitzordu berria du. Ea Garcia hautatuen artean dagoen.



Urnietako kiroldegi berriak maketan ikus daitekeen sarbidea izango luke. UDALA

Urnietako kiroldegi berriaren aurkezpena, ostegun honetan

KIROLA Udalak aurkezpen ekitaldira hurbiltzeko deia luzatu die urnietar guztiei. 19:00tan hasita, Lekaion

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak kiroldegiaren eraberritzearen egitasmoa jendaurrean aurkeztuko du. Prentsara bidalitako oharren arabera, "aurkezpen ekitaldian egitasmoaren zein fasetan aurkitzen garen eta erreforma lanak noiz hasiko diren azalduko dugu".

Erreforma amaitu ostean kiroldegiak izango duen itxura eza-gutzera emateko hainbat argazki erakutsiko dituztela iragarri dute ere. Urnietan egun martxan dagoen egitasmo handiena kiroldegiaren eraberritzea da. Xehetasunak Lekaion eskainiko dituzte, ostegun iluntzean.

Mendizabal lehen mailako pilotariekin lehiatzen ari da

PILOTA Nora Mendizabal andoaindarra maila ona ematen ari da Euskal Herriko txapelketa nagusietan

Erredakzioa ANDOAIN

Kirola da andoaindar gaztearen ardatzetakoa. Leizaran eskubaloiko kadete mailako jokalaria da, baina batez ere pilotaria. Iaz, Herriarteko txapelketan historia egin zuen. Aurten, bere kirol garapenean aurrerapausoak eman nahi ditu.

Finalaurrekoa, asteburuan

Azken txanpan sartu da aurten estreinakoz Gipuzkoan antolatu duten eskuz binakako Emakumea Pilotari Txapelketa. Ligaxkan Urien-Espinar bikoa izan da onena, eta zuzenean finalera sailkatu dira. Finala jokatzeko asmoz, ostiral honetan Nora Mendizabal-Maidier Mendizabal / Arrieta-Araiztegi bikoteek finalaurrekoa jokatu dute. 18:30ean hasiko da partida Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan.



15 urterekin, andoaindarra eskarmentu handiko kirolariekin jokatzeko ari da.

Laboral Kutxa Emakume Master Cup txapelketa

Euskal herri mailako Txapelketa horretan ere maila ona ematen ari da. Igandean partida du Murgian, 10:00tan hasita.



Asier Arregi Dominguez. BIZIMARTXAK

Asier Arregi estatu mailako ziklo-krosean TOP10ean sailkatu da

ZIKLOKROSA Duela aste batzuk izan bazen ere, Andoaingo txirrindulariari aitortza eta aipamena egitea zilegi da. Bizikleta.com elastikoarekin hamargarren aldiz irten zen Espainiako txapelketan, eta sailkapen nagusian 9. postuan sailkatu zen. Emaizta ona, zalantzarik gabe. Sare sozialetan balorazio ona egin zuen: "Lasterketa azkarra, akats gutxi egitekoa eta eskarmentuaz baliatzeko aproposa".

Leizaran taldeko jubenilak Euskadiko promozio fasean

ESKUBALOIA Andoaingo Leizaran eskubaloiko taldeko jubenil mutilek Euskadiko txapelketako promozioan parte hartu dute, asteburu berean emozio handiko hiru partida jokatu.

Errenterian, ligaska itxian jokatu zuten lehian partida bat irabazi eta bi galdu zituzten. Emozioak azkeneraino iraun zuen, igandeko azken partidaren andoaindarrek oraindik ere sailkatzeko aukerak bazituztelako. Tamalez azkenean ez dute sailkapena lortu. Nolanahi ere klubean oso pozik daude jubenil mailakoekin egin duten denboraldi bikainarekin.

EUSKADIKO TXAPELKETA

PROMOZIOA, EMAITZAK	
Urtarrilak 25, Errenteria:	
Leizaran-Ereintza	27-36
Urtarrilak 26, Errenteria:	
Leizaran-Elgoibar	25-23
Urtarrilak 27, Errenteria:	
Leizaran-Basauri	25-29

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOIA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZA

Euskalduna-Billabona	1-2
Tolosa-Urnieta	4-2
Mundarro-Ostadar	0-2

SAILKAPENA

1 Euskalduna	49 puntu
2 Mundarro	36 puntu
5 Billabona	34 puntu
12 Urnieta	19 puntu
16 Mariño	9 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

16:00 Orioko-Euskalduna / Ig, 3
11:45 Urnieta-Mundarro / Ig, 3

ERREGIONAL MAILA

EMAITZA

Euskalduna-Lengokoak	4-1
----------------------	-----

SAILKAPENA

1 Axular	39 puntu
8 Euskalduna	21 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

15:30 Mundarro-Euskalduna / Ig, 3

GORENGO MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Urnieta-Mutriku	2-0
Intxurre-Euskalduna	3-4

SAILKAPENA

1 Urnieta	40 puntu
2 Aloña Mendi	36 puntu
4 Hernani	25 puntu
5 Euskalduna	20 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

17:30 Euskalduna-Urnieta / Lar, 2

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA

EMAITZA

Ordizia-Euskalduna	1-3
--------------------	-----

SAILKAPENA

1 Billabona	41 puntu
14 Euskalduna	20 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

15:30 Euskalduna-Amaikak Bat / Lar, 2

JUBENIL MAILA, KOPA

EMAITZAK

Euskalduna-Sanse	1-4
Mundarro-Urnieta	0-0

SAILKAPENA

1 Usurbil	6 puntu
3 Urnieta	4 puntu
7 Euskalduna	1 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

15:00 Baskonia-Euskalduna / Ig, 3

KADETE MAILA, NESKAK

KOPA, LEHEN JARDUNALDIA

Mundarro-Euskalduna	2-1
Urnieta-Amara Berri	0-1

ASTEBURUKO PARTIDA

10:25 Luberrri-Urnieta / Ig, 3
11:30 Euskalduna-Danena / Lar, 2

KADETE MAILA, OHOREZKOA

EMAITZA

Euskalduna-Sanse	3-4
------------------	-----

SAILKAPENA

1 Antiguoko	45 puntu
15 Euskalduna	6 puntu
16 Orioko	1 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00 Orioko-Euskalduna / Ig, 3

ARETO FUTBOLA

GIPUZKOA, 1. MAILA

EMAITZA

Euskalduna-Idiazabal	5-2
----------------------	-----

SAILKAPENA

1 Euskalduna	33 puntu
2 Jaixki AFT	32 puntu
3 Herrikide	31 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

19:40 Eskoriatza-Euskalduna / Lar, 2

ESKUBALOIA

SENIOR MAILA

EMAITZA

Ormaiztegi-Urnieta	24-24
--------------------	-------

SAILKAPENA

1 Munttarpe	20 puntu
2 Eibar	19 puntu
4 Urnieta	14 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

19:00 Urnieta-Bidasoa Irun / Lar, 2

SENIOR MAILA, NESKAK

EMAITZA

Leizaran-Usurbil	15-35
------------------	-------

SAILKAPENA

1 Usurbil	22 puntu
2 Egia	18 puntu
3 Leizaran	16 puntu
4 Munttarpe	10 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:45 Egia-Leizaran / Lar, 2

JUBENIL MAILA, MUTILAK

UDABERRI GAZTE TXAPELKETA

10:15 Urnieta-Eibar / Ig, 3

JUBENIL MAILA, NESKAK

UDABERRI TORNEOA

17:45 Leizaran-Eibar / Lar, 2

16:00 Ereintza-Urnieta / Lar, 2

KADETE MAILA, MUTILAK

GIPUZKOA TROFEOA

11:00 Urola-Urnieta / Ig, 3

UDABERRI TORNEOA

Amenabar B-Leizaran	21-36
---------------------	-------

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00 Leizaran-Pulpo / Lar, 2

KADETE MAILA, NESKAK

GIPUZKOA TROFEOA

16:15 Leizaran-Aiala / Lar, 2

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 31

ESKUALDEA Matrikulazioa

EPA helduen heziketa eskolaren deialdia. Eskaintza zabala, aukeran. Andoain: Kale Nagusia, 4.

(943 30 40 21).

Hernani: Antziola, 62.

(943 33 53 18).

Informazioa: Andoain, Hernani.

URNIETA Deialdia

Ordenantza fiskaletan hobaria eskatzeko aukera. Argibideak: Bertan. **Azken eguna: Urtarrilak 31.**

ANDOAIN Parte hartzea

"Pausoz pauso, martxoak 8 emakume" kalejiran omenduko dituzten emakumeak proposatzeko prozesua zabalik dago.

Proposamenak aurkezteko: Bastero, Ataria, Allurralde, Andoain.eus.

URNIETA Odol-emaileak

Odol emaileen hitzordu berria. **18:30-20:30, Ambulatorio zaharra.**

ANDOAIN Udal batzarra

Udalaren osoko ohiko batzarra. **19:00, Udaletxea.**

URNIETA Entsegua

Santa Eskean irtengo den taldearena. **20:00, Lekaio.**

ANDOAIN Informazio kanpaina

Edukiontzia grisaren ezarketa herrian. **16:00-19:30, Galardi inguruan.**

OSTIRALA 1

ANDOAIN Informazio kanpaina

Edukiontzia grisaren ezarketa herrian. **16:00-19:30, Etxeberrieta plaza.**

URNIETA Korrika batzordea

Antolaketari ekiteko bilera berria. **16:30, AEK euskaltegia.**

URNIETA Kantu ikastaroa

Aurrera Gure Ametsak antolatuta. Xehetasun gehiago 9. orrialdean. **19:00-20:15, Lekaio.**

ANDOAIN Antzerkia

"Ghero: azken euskalduna", Mikel Martinez eta Patxo Telleriaren eskutik. **21:30, Bastero. 12 euro.**



Mikel Martinez, Patxo Telleria, Olatz Ganboa, Iñaki Maruri eta Ane Pikaza aktoreak igoko dira Andoaingo taula gainera, ostiral honetan.

ANDOAIN 'Ghero: azken euskalduna' antzezlan

Ospitale batean, azken euskalduna hiltzear dago. Berarekin batera, milaka urtez iraun duen hizkuntza txiki hori, euskara, desagertuko da. Azken agurra emateko ordua da. Emozioz beteriko antzezlan da, originala, dibertigarria, harrigarria eta estetikoki ausarta.

Otsailak 1, ostirala. 21:30, Bastero. 12 euro.

LARUNBATA 2

ANDOAIN Informazio kanpaina

Edukiontzia grisaren ezarketa herrian. Informazio puntua zabalik egongo den azken eguna izango da. **10:30-14:00, Merkatu plaza.**

ANDOAIN Bilera

Martxoaren 8ko greba orokorra antolatzeko bilera irekia antolatu du mugimendu feministak. **11:00, Urigain.**

IGANDEA 3

URNIETA Ikuskizuna

"Mr. Train" txotxongilo ikuskizuna, familia osoarentzat. **17:30, Sarobe. 3 euro.**

ASTELEHENA 4

ANDOAIN Edukiontzia

Errefusa bereizteko edukiontzia itxiaren erabilera indarrean jarriko da. Astean lau aldiz ireki ahal izango da, organikoa irekitzeko erabiltzen den txartel berdinarekin. **Otsailaren 4tik aurrera.**

ANDOAIN Santa Eskea

SEGA Goiburuko taldea baserriz baserri ibiliko da kantuan. **15:00, Goiburu.**

URNIETA Santa Eskea

Udalak antolatuta, talde bat kalez kale kantari arituko da. **17:00, San Juan plaza.**

ANDOAIN Santa Eskea

Larramendi Bazkuna taldekoak kalez kale kantuan arituko dira. **18:00, Dr Huitzi kalea.**

OSTIRALA 8

URNIETA DJ Tailerra

Little Martin eta Marin Arakamaren eskutik, 14-25 urte bitartekoentzat. **18:30-20:00, G. Informazio puntua.**


ESKUALDEA Matrikulazioa

2019-20. ikasturtea: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH. **Azken eguna: Otsailak 8.**

URNIETA Deialdia

Otsailaren 16rako sagardotegia antolatu dute Denda Berrin. Aldez aurretik izena eman beharra dago. **Azken eguna: Otsailak 8.**

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Ploey: bakarrik hegan inoiz ez**

Larunbata, 2: 17:00.
Euskaraz.
Igandea, 3: 17:00.

Gente que viene y bah

Larunbata, 2: 19:30;
22:00.
Igandea, 3: 19:30.

Ast, 4: 19:30; 22:00.

The old man and the gun

Larunbata, 9: 19:30;
22:00.

Igandea, 10: 19:30.
Ast, 11: 19:30; 22:00.



SINOPSIAK

**Gente que viene y bah**

Zuz.: Patricia Font. **Herr.:** Espainia (2019). **Aktoreak:** Clara Lago, Carmen Maura, Alex García. **Iraupena:** 97 minutu.

Galak

Bikotekiderik gabe eta lanik gabe, Bea jaioterrira itzuliko da. Bertan, paisaia zoragarriez

gain, etorkizun ezegonkorra du aurrean, familia bitxi bat eta bizilagun "misterioitsua".

Ploey: bakarrik hegan inoiz ez

Zuz.: Arni Asgeirsson. **Herr.:** Islandia-Belgika (2018). **Generoa:** Marrakiz bizidunak, komedia. **Iraupena:** 83 minutu. **Adina:** Adin guztientzat.

Familia osoarentzat aproposa

Urre-txirri gazte baten historia da. Hegan ikasteko arazoak ditu; horregatik, negua heltzean, ezin du bere familiakoekin klima epelago

batera migrazioa egin. Bere adiskideek lagunduta, aurrera egin ahal izango du etsaiz jositako mundu batean, benetako heroi bilakatu arte.

Maskara lehiaketa Andoainen

Inauteriei lotuta, maskara lehiaketaren edizio berria antolatu dute. Gaia librea da, eta maskara edozein materialez egin daiteke, beti ere aurpegiari egokituz. Hautagaiek lana Basteron aurkeztu beharko dute datorren otsailaren 26an, arratsaldeko 17:00etik 19:00era. Sariak hiru mailatan banatuko dituzte: 8-9 urtekoak, 10-11 urtekoak eta 12-15

urtekoak. Sari banaketa ekitaldia Lekaion egingo dute, Ostegun Gizenean. Hau da, otsailaren 28an arratsaldeko 18:00tan hasita. Hautagaien lanak Lekaion ikusgai izango dira inauteriek iraun bitartean. Egileek lanak martxoaren 6an jaso ahal izango dituzte. Lehiaketa Sormen Plastika Tailer Elkarteak eta Andoaingo Udalak antolatu dute.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Manex
Zorionak Manex!!!
Aurten 15!!
Ziztu bizian zoaz!!
Besarkada bana aita
eta amaren
partetik.



ANDOAIN
Eider
Eiderrek 7 urte bete
zituen urtarillaren
30ean. Zorionak
artista, eta muxuak
etxeko guztien
partetik!!



ANDOAIN
Iker eta Hantz
6 eta 3 urtetxo, ze handiak. Segi gure etxea
kolorez eta irriz betetzen. Maite zaituztegu!
Amatxo eta aitatxo.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 2 eta igandea 3
ANSA: Ondarreta, 8.
943 591 302. Andoain.

URNIETA

Larunbata 2 eta igandea 3
URRUTIA MARTIN: Etxeberria, 1.
943 557 738. Hernani.
GAUEZ, BI HERRIETAN: ALDABE.
943 336 022. Hernani.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

www.aiurri.eus
webgunea
"Zorion agurrak" atalean, fitxa osa
ezazu. Urtebetetze egunera bitarte,
ikusgai izango da webgunea.
Ez dadila tamaina handiko
argazkia izan. Tamaina
editatzerik ezean, erabili ezazu
posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus
Mezua eta argazkia bidali Aiurriko
posta elektronikora, herria zehaztuz.
Arantzibia 4-5, behea. Andoain
Etor zaitez bulegora: 943 300 732.
Whatsappez:
619 16 35 37
Mezua eta argazkia bidali Aiurriko
posta elektronikora, herria zehaztuz.

Korrikakoek bilera berriak deitu dituzte

Korrikaren 21. edizioa martxa hartzen ari da. Otsailaren 1ean bilduko da berriro Urrietako Korrika batzordea. Otsailaren 11n, berriz, Andoaingo Korrika batzordea. Bi kasuetan herri bakoitzeko AEK euskaltegietan elkartuko dira

Erredakzioa ANDOAIN
Joan den ostiralean lehen batzordea egin zuten Urrietan: "Bertaratutako eragile eta herri-tarrei Korrikaren nondik nora-koak azaldu eta hainbat ekimen proposatu zitzaizkien. Hala nola, Korrika Kulturala eta Korrika Txikia martxan jartzea. Hurrengo batzordea ostiral honetan izango da (otsailak 1), arratsaldeko 16:30ean hasita Urrietako Aek-n. Animatu eta parte har-teraz gonbidatzen zaituztegu."
Andoaingo batzordearen bile-ra berria otsailaren 11n izango, 18:30ean hasita: "Bilerak irekiak dira. Herriarrak eta euskaltza-leak gonbidatu nahi ditugu".



Korrikaren aurkezpen ekitaldia, Donostian. Klika izango da aurtengo lelo nagusia, eta kamiseta eta bestelako produktuetan horixe izango da nabarmenduko den irudia. AEK

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak
Aiurriin:
90 euro

Korrikaren produktu berriak

Korrika diruz laguntzeko modu ezberdinak daude, hala nola Korrikako produktuak erosten edota "Korrika Laguntzaile" modura izena emanez. Korrikako kamiseta eta bestelako hamaika produktu Andoaingo AEK euskaltegian eskuratu daitezke, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 19:00etara. Helbidea: Plazaola Kalea, 2 (Urigaindik gertu).

Korrika Laguntzailea
Korrikaren zutabe nagusietakoa da, eta egun hauetan horien bila ari dira. 12 euroren truke Korrika Laguntzailearen pina jasoko dute izena ematen dutenek. Horrez gain, Euskal Herriko ehunka merkatalguneetan beherapenak eskuratuko dituzte. Saltokien zerrenda dakarren katalogoa prest dute.



Aurtengo edizioko kamiseta. AEK



andoaINDARRA
euskaraz



Aurtengo deialdiaren afitxa. UDALA

Zortzi emakume andoaindar omentzeko deialdia martxan ipini dute

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udaleko Emakume eta Gizonen Berdintasun saila "Pausoz pauso, Martxoak 8 emakume" ekitaldiaren edizio berria prestatzen hasi da. Jai giroan egiten den kalejiraren bitartez, hainbat emakumeren lana edo ekimena goraipatu nahi izaten da. Andoainen, ekimena antolatzen hasi zenetik, arrakasta handiarekin ospatzen da. Aurtengoan ere herritarrei aukeraketan parte hartzeko deialdia luzatu zaie: "Egindako lana azpimarratzea merezi duten emakumeen izenak jaso nahi ditugu". Proposamenak datorren otsailaren 10a bitarte utz daitezke Bastero Kulturgunean, Ataria zerbitzuan, Anbulatorioan eta Allurralden jarritako buzoietan. Baita andoain.eus webgunearen bitartez ere. Egitaraua finkatzeko baldin badago ere, ziurrenik "Pausoz pauso, Martxoak 8 emakume" kalejira datorren martxoaren 9an ospatuko da.

AZKENA



2018ko martxoaren 8an jendetza atera zen kalera, mugimendu feministak deituta. AIURRI

Mugimendu feministaren greba deialdia

2018an jauzi kualitatiboa eman zuen mugimendu feministak, martxoaren 8aren harira antolatu zituen deialdiekin. Aurtengorako greba orokorra deitu dute, eta gainerako eragileei deitzaileak eurak direla argi eta garbi utzi nahi diete

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Euskal Herriko Mugimendu Feministak greba orokorra deitu du, datorren martxoaren 8rako. Eta asanblada ezberdinetan eskuartean dituzten irizpideen artean, bada nabarmendu beharreko bat: deitzailea mugimendu feminista dela. Ez beste inor.

Boteretzea modu askotara erakutsi daiteke. Gizarte eta lan bizitza geldiarazteko ekimenean, emakumeek bere gain hartu nahi dute erantzukizun osoa. Eta asmo hori garbi azaldu dute: "Hiri eta herrietan deitutako mobilizazioetan parte-hartzea bultzatzea eskatzen dugu eta ez beste era

gile batzuk deitu ditzaketen ekimenetan. Modu berean, greba feminista dinamikaren irudi eta aldarrikapenak erabiltzera deitzen dugu, sindikatu, alderdi edo beste edozein erakunderen sigla eta koloreen protagonismoa saihestuz. Ez dugu Mugimendu Feministaren borroka inork xurga-

tzerik onartuko, ez eta honen erabilpen partidista edo korporatibista interesaturik ere".

Andoainen ekimenak erantzun handia izango duela aurreikusuten da. Urrutira joan gabe, azaroaren 25ean, 50 emakumek parte hartu zuten Goikoplazako performancean.

Greba antolatzen hasteko egin duten kartela. EHMf

Lehen bilera Andoainen, larunbatean

"Andoain greba feministarantz!" izenburupean, bilera deitu dute Urigainen. Larunbat honetan izango da, otsailak 2, goizeko 11:00tan hasita. "Greba antolatzeko deialdia irekia", irakur daiteke zabaldu duten afitxean. Besteak beste, martxoaren 8ra bitarteko egutegia antolatzen hasi nahi dute.

Ibilgailuak albiste

Urnietako Udalak ibilgailuen erabilerari lotutako bi ohar aditzera eman ditu. Idiazabal kalean abenduan izandako sutearen ondorioz, egun hauetan herriguneko sarbideak aztertzeari ekin diote. Suhiltzaileek arazo handiena elizaren atzealdeko etxeetan topatu dute.

Etenetako igogailua eraikitzeko lanei ekiteko, bestalde, zortzi aparkaleku baliogabetu dituzte.



Elizaren atzealdean ibilgailuak pilatuz gero, bertatik igarotzeko zailtasunak dituzte.



Igogailua eraikitzeko lanei iraun bitartean aparkaleku gutxiago izango da.